



BARREN

TOKIKOM




Hasi da argitzen



Jose Luis Urbiola Elosegui

2020ko apirilaren 9an hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



I. URTEURRENA

Concha Manrique Reguero

2019ko apirilaren 21ean hil zen, 97 urte zituela.

*Gure oroimenean bizi zaren artean,
betiko izango zara gure bihotzetan.*



IX. URTEURRENA

Edurne Gabilondo Aizpitarte

*Urak dakarrena urak darama,
zuk emandakoa gurekin gelditzen da.*

Maitasunez, Amaia, Josu, Lurdes eta Jesusek



I. URTEURRENA

Jose Liberal Dominguez

2019ko apirilaren 5ean hil zen, 79 urte zituela.

Beti izango duzu leku berezi bat gure bihotzetan.

Zure ilobak



I. URTEURRENA

Jose Liberal Dominguez

2019ko apirilaren 5ean hil zen, 79 urte zituela.

*Zu gurekin bizi izana izan da gure bizitzan onena.
Gure zati bat zurekin eraman duzu, baina hainbeste utzi duzu,
zaila egingo zaigula gurekin ez zaudela onartzea.
Zure izpirituak eta oroitzapenak gurekin jarraituko dute bizitza osoan.
Maite zaitugu, Pepe.*



Zure familia



Etxealditik Euskaraldira!

apirilaren 20tik maiatzaren 3ra

Etxeko hizkuntza-ohituren gainean hausnarketa egin eta etxeari lotuta ditugun hizkuntza-praktiketan euskara gehiago erabiltzeko proposamena.

Bestelakoa zen martxoan hasi eta udara arte Euskaraldiaren bigarren edizioari lotuta geneukan lan-plana, baina koronabirusak sortutako osasun krisiak dena aldarazi digu. Entitateekin egin behar genituen aurkezpen eta bisitak aurreragorako laga eta Euskaraldia etxera ekartzeko proposamena prestatu dugu. Hau da herritarroi proposatzen dizueguna:

Apirilak 20
astlehena

Koloretako puntuak jarri genituen leiho eta balkoietan Etxealditik Euskaraldira ekimenarekin bat egiten dugula azaltzeko.

Apirilak 21
asteartea

Etxeko hizkuntza-ohiturak aztertu genituen mintzagrama baten bidez. Bi egun izan genituen horretarako.

Apirilak 24
ostirala

Atera etxean dituzuen mahai-jolasak, kartak edota tribalak eta jolastu euskaraz.

Apirilak 25
larunbata

Idatzi edo deitu lagunei eta lotu hitzordua pare bat pote elkarrekin eta euskaraz hartzeko, etxetik bada ere.

Apirilak 26
igandea

Etxekoak bildu eta bazkaltzeko eguna izaten da domeka. Euskal Herri osoan bazkalduko dugu batera eta euskaraz.

Apirilak 27
astlehena

Osasun krisi honetan gu zaintzeko eta egoera latz honi aurre egiteko lanean dihardutenei eskerrak emateko eguna izango da.

Apirilak 28
asteartea

Erosketak egiten ditugunean dauzkagun hizkuntza-ohituren gainea hausnarketa egingo dugu.

Apirilak 29
asteazkena

Zine-areto askotan asteazkena izaten da ikusleen eguna. Guk ere eguaztena aukeratuko dugu etxean eta etxeokoin zinea euskaraz ikusi eta gozatzeko.

Apirilak 30
osteguna

Etxealditik Euskaraldira ekimenak gure baitan piztutako bizipen eta emozioekin zerbait sortzeko proposamena jasoko dugu (argazki bat, bertso bat, marrazki bat ...). Bi egun hartuko ditugu horretarako.

Maiatzak 3
igandea

Bizipen-emozioekin herritarrok sortutakoa sareetan jarriko dugu Etxealditik Euskaraldira ekimenari amaiera emateko.

Elgoibarko EUSKARALDIA Taldeak elgoibartar guztiok animatu nahi zaituztegu Etxealditik Euskaraldira ekimenean parte hartzera. Badakigu bizi dugun egoera ez dela batere gozoa, baina, bizipozarekin batera, euskalgintzari ere eutsi egin behar diogu.





Kulturgintza jokoan

tzat, azken urteetako Sant Jordi-rik tristeena: Kataluniako kaleak hutsik, eta Amazon liburuak eta arrosak banatzen ari den bitartean liburu-dendak inoizko egoerarik larrienean.

Gutziz logikoa deritzot kulturgintzan diharduten horiek dagokiena eskatzeari, exijitzeari. Deitutako grebak eta langileak antolatu izanak Lakua sektoreran dirulaguntzak bideratzera behartu du, baina askotan ez da nahikoa izaten, eta herri ekimenak bihurtzen dira salbamendu. Horren adibide da Katalunian sortu berri duten *Librerías obertes* proiektua; bertan herritarrek liburuak erosteko aukera dute, eta guzti hau bukatzean jasoko dituzte aukeraturiko liburu-dendan.

Kontziente izan beharko ginatke gure ohiturek nori egiten dioten mesede eta nori kalte, kulturak gure egunerokotasuna osatzen baitu.

Krisiak gogor jo du (eta joko du) ekonomia, eta zenbaitek pentsatuko dute kulturgintza bigarren mailakoa dela. Kultura ez da, baina, gure denbora librean eta asperdura betetzen dituen erreminta bakarrik; hausnarketarako eta heziketarako tresna ere bada. Hortaz, geure burua eta ingurukoak zaintzen ari garen neurri berean zaindu beharko genuke kultura, kulturgintza eta baita kultur eragileak ere.

Jakina da hau guztia bukatzean hainbat liburu-dendak itxita jarraituko dutela, guk elikatu baititugu plataforma handiak, aspertzeko beldurrez edo Sant Jordi ospatzeko asmoz. Ez zait justua iruditzen kapitalismoaren pisua norbanakoengan erortzea, baina muturreko kasu honetan erabaki txikiak agian datorren urteko Sant Jordi liburu-denda txikietan ospatzea ahalbideratuko digute.

U neoro zerbaitegin behar dugun gizarzte honetan beldur diogu asperzteari, eta ezin uka kulturari esker goxatu dugula konfinamendua gutako askok. Baina gutxi ohartuko ginen apirilaren 21 eta 22rako euskal kulturgileek greba digitala iragarri zutela, eta beraz, egun horietan euskal kulturgintza sareetatik desagertu zela. Apirilaren 23an, berriz, liburuaren eguna izan zen. Niretzat behin-

“Kultura ez da gure denbora librean eta asperdura betetzen dituen erreminta bakarrik; hausnarketarako eta heziketarako tresna ere bada”

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Euskarazko Topagunea</p>	<p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112</p> <p>Publizitatea: 943 743 704 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zalaoa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olai-zola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR URDIA AJUNTAMIENTU</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>   <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
--	--	---

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ GOIAN, BEHEAN

Ez dakizue zer nolako ilusioa egin zigun lehengo astean Elgoibarko batek (izena ez esateko esan zigun) bidalitako zera horrek. Mekatxis! Oraingoan ere ez zait burura etorriko. *WhatsApp! Eskerrik asko, Ramon!* Hau gazteagoa da, eta... Negar eta dena egin genuen telebista txikitxo horretan horren guapoak ikustean, nork bere mezua eskuan, nork bere irria aurpegian. Zer egiten dizute, bada, horren gazte egoteko? Geuk ere gogura egingo genuke horrelako bideo bat zuek ikusteko, baina gure paraje hauetan laino itxia dago, eta desitxuraturata irteten da irudia, antza. Baina, tira!, orain inportanteenak zuek zarete. Zer moduz zabilzate, animoz? Egunak luzeak, ezta! Hemen, noiz edo noiz, etorri berri horrek kontatuta, zer edo zer bada-kigu. Halarik ere, ezer gutxi. Baina egia da Maalako elizako hormaren kontra eguzkitan ezin zaretela egon, eta familiakoak ezin direla ikustera joan? Ramonek, buruaz, baietz dio. Eta egia da nagusien etxe batzuetan jendea hilda topatu dutela, eta erresidentziatako langileen lan baldintzak oso txarrak direla, eta egoiliarren %80 kutsatuta daudela? Ramonek, buruaz, baietz dio. Zer gogorra, ezta! Hemen egonda, eta, gainera, immunizatuta, oso erraza da berba egitea, baina guk badakigu, bizitzaren beste askotan bezala, orain ere borroka hau ere irabaziko duzuela, eta, gainera, mamorro hori izorratzeko, konfinamendua amaitutakoan, gertukoekin txurroak, txokolatea jango dituzuela, eta zuetako askok txanpan kopa bat baino gehiago edango duzuela ospatzeko. Izan ere, egun horretan baimena izango duzue. Beraz, animo! A!, ahaztu aurretik, goraintziak, lehenengoz jubilatuei (Arrate, Maite, Ana Mari ...) Gero, egun, lehenengo lerroan dauden guztiei: Itziar, Isa-

bel, Oihana, Mari Carmen, Mari Sol, Amaia, Leire...; nola du izena ile kizkurtua duenak? *Nik ezin lagundu; ni ez nintzen erresidentzian izan. Bada, galdetu, Nievesi, edota Ballibarrekoari, Lasari; eurak andreekin egon ziren. Izena ez dute gogoan, baina abizena, Galdona.* Eta Boliabiako neskak, eta estankoko familiakoarenak? Baliteke bat baino gehiago ahaztea, baina guztientzat, goian, behean gauden elgoibartar guztion izenean, musu handi bana, eta gogoratu, oso maite zaituztegu.

Juan Luis Mugertza

▶ ATSEKABEA

Egun Elgoibar Ikastola osatzen dugunok atsekabe handiz jaso dugu Agustin Gorostizaren heriotza, hainbeste urtetan bertako zuzendari ekonomikoa izana, eta buru-belarri aritu izan zena hasierako amets hura egun den errealitate bihurtzeko. Esan beharrik ez dago, familiaren eta hurbilekoen nahigabeen lagun gaituzuela. Agur bero bat.

Elgoibar Ikastola

▶ ESKERRIK ASKO DENOI

Oier Etxaniz Beneitezen familia guztiairen partez, eskerrak eman nahi dizkizuegu egun hauetan jasotako laguntza, maitasun eta afektuagatik. Egoera arraro honen ondorioz, ezin izan ditugu zuen agurrak pertsonalki jaso. Hala ere jakin, zuen mezuak, bideoak eta bestelakoak gugana heldu direla. Esker bereziak eman nahi dizkiogu Elgoibarko bandari eta Mauxitxa txarangari hilaren 18an, 19:00etan musikaren bitartez emandako babesagatik. Oierren lagunei ere, aurreko omenaldia posible egiteagatik eta jasotako babesagatik. Mendaroko etxez etxeko ospitalizazioko langileei ere eskerrik beroenak, zuen profesionaltasunagatik, gure familiari, eta batez

ere, Oierri emandako eta erakutsitako guztiagatik. Azkenik, eskerrik asko zuetako bakoitzari, zapatuan balkoiataran irten zinetenoi eta modu batera edo bestera familiarekin kontaktuan jarri zareten guztioi.

Oier, zauden lekuan zaudela, babes-tuko gaituzulakoan, bihotzean eramango zaitugu beti, zu eta egunero esaten zenuen esaldia: Umore ona, botika onena.

Gogoan izango zaitugu.

Etxekoak

▶ OHARRA

Maiatzaren 1a jaienez, datorren astelehen egunean kaleratuko dugu, apirilaren 30ean. Hori dela-eta, informazioen bat argitaratu nahi izanez gero, beranduenez martitzen eguerdirako bidali beharko duzue BARREnera: barren@elgoibarkoizarra.eus edo whatsapp bidez: 688 634 044

Barren

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhaz:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biroak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxak...
6. Ez dugu gazteleeraz datorren eskutitz argitaratuko.



Maria Begoña Villagarcia Barraincua

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 65 urte zituela.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.

Zure semearen lagunak




Maria Begoña Villagarcia Barraincua

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 65 urte zituela.

***Bego, lagun ausarta eta bihotz handikoa.
Beti izango ditugu gure bihotzetan zure alaitasuna
eta elkarrekin bizi izandako momentuak.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.***

Elgoibarko kuadrilla




Maria Begoña Villagarcia Barraincua

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 65 urte zituela.

Zure semearen plazako lagunak





Maria Begoña Villagarcia Barraincua

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 65 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.



Jose Ignacio Torres Ibañez

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 63 urte zituela.

Beti gure bihotzetan eramango zaitugu, 'sherpa'.

Anaren korrika taldeko lagunak



Jose Ignacio Torres Ibañez

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 63 urte zituela.

***Basarte Tennis Elkarteak
beti izango zaitu gogoan.***




Elena Celaya Alzola

2020ko apirilaren 8an hil zen, 54 urte zituela.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

Etxekoak



Ioseba Arrizabalaga hil da, bi legealditan Elgoibarko Udaleko zinegotzi izandakoa

Ioseba Arrizabalaga Mendikute hil da, 43 urte zituela. Bi legegintzaldiz izan zen Arrizabalaga Elgoibarko Udaleko zinegotzi, eta egun, Sigma Probaleku Herri Kirol Elkarteko sustatzaileetako bat ere bazen. 2011n hartu zuen estrainekoz zinegotzi kargua, Alfredo Etxeberria alkate zela, eta legegintzaldi haren ondoren, berriz aukeratu zuen EAJk zerrendarako. Landa eremuko ardurak bete zituen, bai Etxeberriaren agintaldian eta baita Ane Beitia egungo alkatearen lehenengo legegintzaldian ere. Era berean, Sallobente-Ermuaranbide auzoko alkate ere izan zen. 2008an hartu zuen alkate kargua. Udalean Landa Inguruko Sailaren ardura izan zuen garaian, beste kargu eta ardura batzuk ere bete zituen. Habitat Batzordeko kidea izan zen, esate baterako, eta Debabarrena eskualdeko Mankomunitatean eta Badesan ere bera izan zen Elgoibarko ordezkaria. Era berean, Udal Kirol Patronatuko kide ere izan zen, bai eta San Lazaro Zaharren Egoitzako Batzordekoa ere.




'Xalbadorren heriotzean' kantuarekin egin zioten azken agurra Oier Etxanizi

Joan zen barikuan hil zen Oier Etxaniz elgoibartarra minbiziaren ondorioz, eta haren oroimenean, balkoietatik *Xalbadorren heriotzean* kanta abesteko deia egin zuten zaturako. Udal Musika Bandan eta Mauxitxako txarangan saxofoia jotzen zuten Etxanizek, eta haren lagunekin batera, Musika Bandak eta txaranga egin zuten ekimerako deia. Musikariek instrumentuekin jo zuten kanta, nork bere balkoitik, eta zenbait herritar abestera ere animatu ziren. Informatikaria zen, eta azken urteetan boluntario lanetan aritu zen Aspanogi minbizidun haurrak entretenitzen. EHuko ikertzailea zen, eta minbizia ikertzen ari zen hainbat onkologorekin elkarlanean. Doktoregoa egiten ari zen bioinformatikan, eta bere tesia irailean aurkeztekoa zuen.

Konferentzia eta kurtso zientifikoak antolatzen dituen Python San Sebastian elkarreko presidentea izan da 2014tik. Tartean, minbiziaren aurkako ikerketak sustatzeko maratoi bat antolatu zuen. Duela gutxi, Elgoibarko kultur ekitaldi guztien berri emateko atari bat sortu zuen, eta han biltzen zuten Elgoibarko kultur agenda guztia.



Agustin Gorostiza hil da, Elgoibarko ikastola sortzen jardundakoa



Agustin Gorostiza hil zen apirilaren 15ean 83 urte zituela. Gorostizaren izena Elgoibar Ikastolarekin lotzen da Elgoibarren. 1975. urterako Ikastolan lanean bazebilen ere, aurretik ere ezkutuan ibili izan zen ikastolaren sortze-lanean. Ikastola hartzen ari zen dimentsioa aintzat hartuta administrazio-arduraduna behar-beharrezkoa zen, eta horrela hasi zen bere ibilbidea ikastolan. Elgoibarkoan ez ezik, Gipuzkoako ikastolen gorabeherak gestionatzen ere jardun zen. Ikasketaz delineatzailea zen. Ikastolaren eta euskararen alde egin zuen lan, 1997an erretiroa hartu zuen arte.

NBE-EPlak egiten dituzten hornitzaile bila dabil Debegesa

Norbera Babesteko Ekipoak, NBEak, ekoiztu eta enpresei banatzen dizkieten eskualdeko hornitzaileen bila dabil Debegesa, langileak berriz lanean hasteko behar duten materiala eros dezaten. Edozein motako EPlak egiten dituzten hornitzaileak behar dituzte: maskarak, hidrogelak, manparak... Enpresak bere jarduerara itzultzean ezarritako segurtasun arauak betetzen duten materiala edukitzea du helburu ekimen honek. EPlak egiten ari diren hornitzaileak, beraz, Debegesarekin jarri daitezke harremanetan: pymes@debegesa.eus helbidera idatziz edo 680 837 901 zenbakira deituz edo whatsapp bat bidaliz.

Balkoietan jokatu zen Errege Kopako finala

Joan zen zapatuan jokatzekoa zen Athletic eta Realaren arteko Errege Kopako finala Sevillan, baina koronabirusaren ondorioz bertan behera geratu zen partida. Futbolzaleek, baina, balkoietan jokatu zuten partida hori. Bakoitzak bere taldearen kamiseta eta banderak jarri zituen eta ereserkiak abestu zituzten. Herritarrek bidalitako argazkiak ikusteko: www.barren.eus.



Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina hasi dute

Bizi dugun egoera berezi honen ondorioz aurrez aurreko hizorduak bertan behera geratu

dira eta luzatu egin da errenta aitortpena egiteko epea, hori dela eta, une hau aprobetxatu nahi dute Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak, errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazteko. Horregatik, Elgoibarren euskaraz bizi nahi duten herritar guztiei errenta aitortpena euskaraz egiteko gonbita egin diete, eta bide batez, administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izatera animatu. Errenta euskaraz egiten duen herritarren kopurua gorantz ari den arren, errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun dago oraindik. Gure herrian, 25-70 urte bitartekoen datuak aztertzen baditugu, horien %45 da euskaldun alfabetatua, eta ia, %17,22 izan ziren errenta aitortpena euskaraz egin zutenak. Gipuzkoako Ogasunarekin euskaraz egin daitekeela gogorarazi nahi diete herritarrei. Horregatik, Udalak eta Elgoibarko Izarrak bat egiten dute Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarritako 100.000 zergadun Ogasunarekin euskaraz kanpainarekin. Hizkuntza hautua egiteko aukera desberdinak daude: Errenta mekanizatuaren bulegoan, ogasun kanpainaren barruan, gestorian, Interneko zergabidea plataforman edo urte guztian zehar Pertsona fisikoen 030 ereduia betetzean. Informazio gehiago Udaleko Euskara Sailean: 943 744 366



C.D. Elgoibarrek kuota murriztea erabaki du

Koronabirusaren eraginez kirol ekitaldi eta txapelketa guztiak etenda daude martxoaren 14tik. Hori dela-eta, CD Elgoibarrek erabaki du ordaintzeko falta den kuota zatiaren %25 murriztea. Esan duenez datozen egunetan kobratuko dute kuota hori.

Oier Etxaniz Beneitez

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.



***Txikixan eta beti, haundi gure Oier!
Goian bego.***

Mauxitxa txaranga

Maiatzaren 9ra arte luzatu dute konfinamendua, baina domekatik aurrera kalera irteteko baimena izango dute umeeek

Espainiako Gobernuak bi astez luzatuko du konfinamendua, eta momentuz, orain arteko baldintzetan jarraituko dugu maiatzaren 9ra arte. Hala ere, gizarteko zenbait eragilek eskatzen zutena aintzat hartuta, apirilaren 26tik aurrera umeeek kalera irteteko baimena izango dute. Hasieran esandakoaren arabera, gurasoekin erosketak egitera, botikara edo banketxera joateko baimena izango zuten 14 urtetik beherakoek. Kalera irteteko irizpideen berri emateaz bat Espainiako Gobernua kritikak jasotzen hasi zen, baina, gizarteko hainbat esparrutatik, eta atzera egin zuen bere erabakian. Espainiako Osasun ministro Salvador Illak esan zuen Espainiakoa entzuten dakien Gobernua dela, eta aurrez hartutako erabakia aldatu zuten. Hortaz, domekatik aurrera umeeek ibilaldi laburrak egiteko aukera izango dute, baina oraindik ez dute zehaztu zein baldintzetan irten ahal izango duten etxetik. Espainiako Gobernuak bihar zehaztuko ditu ibilaldi horien nondik norako guztiak.



Babes neurriak hartuta egin zituzten odol ateratzeak Olaizaga kiroldegian



Elgoibarko Odol Emaileen elkarteak Olaizaga kiroldegian egin zituen odol ateratzeak joan zen barikuan. Ohiko lokalak babes neurriak hartzeko baldintzak betetzen ez zituenez Udalarik lokal handiagoo eskatu zioten arduradunek, eta kiroldegia utzi zieten. Oso ondo moldatu zirela adierazi dute elkartetik, eta eskerrak eman dizkiote Udalarik, uneoro erakutsi dieten lankidetzarako prestutasunagatik. 40 lagunek eman zuten odola, hori zelako Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak ezarri zieten gehiengoa, eta jende gehiago ere azaldu zen odola emateko prest. Maiatzaren 8an egingo dute hurrengo odol ateratzea Elgoibarren, berriz ere, kiroldegian.

Indarkeria jasaten duten emakumeentzako arreta

Elgoibarko Udalak gogorarazi nahi du indarkeria matxista jasaten duten emakumeei laguntzeko zerbitzua martxan daukela. *Elgoibarren gertu* egitasmoa jarri du martxan, eta horren barruan 688 804 672 telefono zenbakira deitu dezakete emakumeek, 7:00etatik 21:00etara bitartean. Telefono honetan deiak, bideo-deiak eta Whatsappak jaso ahal izango dira.

Laguntza psikosoziala behar dutenentzako arreta

Gurutze Gorriak laguntza psikosoziala behar dutenei arreta emateko doako telefono zenbaki bat jarri du martxan: 900 107 917. Telefono horretan ume zein helduak artatuko dituzte, hau da, alarma egoera honen ondorioz laguntza psikosoziala behar duten herritar orori emango diete zerbitzua: etxegabeak, indarkeriaren biktimak, koronabirusaz gaixo daudenak eta haien senideak...

Konfinamenduaren eraginak gizartean

Hego Euskal Herrian maiatzaren 9ra arte luzatuko dute konfinamendua, eta ordura arte gutxienez, oinarrizko produktuak saltzen dituzten establezimenduak ez beste guztiak itxita egongo dira. Martxoaren 14tik daude denak itxita, eta askok egoera oso zaila bizi dute. Baina konfinamendua merkataritza eta ostalaritza ez ezik, beste hainbat sektoretan ere izan du eragina: Hezkuntza, nekazaritza, hirugarren adinekoen zaintza sektorean, dola eta gurtza kontuetan... Hemen jaso ditugu horietako batzuk.

AINHOA ANDONEGI / AINARA ARGOITIA

HEZKUNTZA

Ikasturteak ez du etenik

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak ebaluatzeko lehen bi hiru hilekoetan egindako lana hartuko dute aintzat, eta Isabel Zelaa Espainiako Hezkuntza ministroak iragarri zuenez, salbuespenak kenduta, ikasle guztiak gaindituko dute ikasturtea, gainditu gabeko ikasgaiak izan arren. Lanbide Heziketako ikasleek praktiketan malgutasuna izango dute, eta praktika-orduak murriztuko dizkiete eta unibertsitatean sartzeko proban ere "aukera gehiago" emango dituzte. Euskal unibertsitateetan, berriz, 'on-line' amaituko dute ikasturtea. Egoerak nola eragin dien jakiteko, hezkuntza alorreko eragile batzuegana jo dugu. Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako protagonistak dira gaur orrialde hauetara ekarri ditugunak.



NEKANE ERRASTI,
Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza koordinatzailea

egokitze hori azkar eta ondo egin dutelako. Egia da badauzkagula master batzuk on-line formatoan, baina ingeniaritza eskolaren kasuan, master bakarra dago on-line, eta hor 15 bat irakasle arituko dira (Guztira 400 bat irakasle dira). Beste guztiak, beraz, nola-halako harremana zuten on-line sistemarekin, baina egia da oso ohituta gaudela baliabide digitalak erabiltzen eta horrek errazten duela. Aurrez aurreko eskolak etenda daude, baina lehen ere dena ez zen eskura entregatzen edo azterketa guztiak ez ziren presentzialak.



◆ **Ikasleak nola ebaluatu. Horixe da irakasle askoren kezka. Zuenan ere bai?**

Gurean urte asko dira ebaluazioaren kontzeptua aldatu genuela eta azken azterketaren kontzeptu hori desagertu zela. Ebaluaketa jarraitua daukagu guk. Etengabe gaude ikasleen

gainean. Lanak bidali eta eskatzen dizkiegu, aldiari behingo kontrolak egiten dizkiegu eta ikaslea uneoro da jakitun bere eboluzioaz. Beraz, azkeneko azterketa horrek pisu txikiagoa du orain, badauzkagulako ebidentziak ikasturtean zehar egindakoarekin ikasleak aurrera zenbat egin duten jakitzeko eta helburuen lorpen maila zenbatekoa den zehazteko. Eta egoera honek baldintzatu gaitu gu ere, bai, ebaluaketa jarraitu hori lehen baino digitalagoa delako orain, ezinbestean. Kontrol puntuak ezin dizkiegu gelan egin orain, baizik eta on-line, baina ari gara erreminta batzuk definitu eta probatu nahian ikasleak zein irakasleak eroso sentiitu daitezten egoera honetan. Ikasleak sentitu behar du modu egoki batean ebaluatzen dugula eta irakasleak sentitu behar du egiten ari den frogari horrek benetan neurtzen duela bilatzen dituen helburuak. Horretan ari gara,

◆ **Unibertsitateetan on-line amaituko duzue ikasturtea. Nola bizi duzu egoera hau?**

Ezustean harrapatu gaitu honek denok eta egun batetik bestera egokitu behar izan gara egoera berrira. Eta ezer baino lehen, zorionak eman nahiko nizkieke gure irakasle guztiei,



HEZKUNTZA

eta espero dugu hilabete honetan lotzea hori dena, maitzean ebaluaketa rekin jarraitu ahal izateko.

♦ **Pikareskarako aukera handiagoa izan daiteke orain. Kezkatzen zaitue?**

Bai, jakina, kezkatzen gaituela, baina nik uste dut ez dugula iparrrik galdu behar. Aurrez aurrekoan ere badaude tranparako aukerak eta ez gara horrekin itsutu behar. Konfiantza izatea ezinbestekoa da. Hori bai, azterketa eredu aldatu behar da. Hausnarketarako ariketak jarri behar dira gehiago eta ez horrenbeste kopiatzeko aukera ahalbidetzen duten galderak. Pedagogikoki ere aldaketa nabarmena eman behar da, eta hori da gehien kostatzen dena.

♦ **Lan-kargaz kexu dira irakasle asko.**

Bai, handitu delako. Dena den, gure eremuan, prest geunden lehen ere lanordu baten barruan edozein momentutan atenditzeko irakasleak. Orain, irakasleek ez dute irakaslearen gelako atea jotzen, baina e-mailak bidaltzen dituzte. Eta bai, lan-karga handitu da. Aldaketa honek ekarri du irakasleek sormen ariketa handiagoa egin behar izana derrigorrean. Ezin dituzu irakasleak

hiru orduz pantaila aurrean izan irakaslearen txapa entzuten. Lehen, aurrez aurre astuna zena, pentsa orain zer den! Horri buelta eman behar zaio, eta irakasleak eginahalak egiten ari dira ezagutzaren transmisioa era erakargarriagoan egiteko. Erantzuna oso ona ari da izaten bi aldeetatik. Irakasleak oso fin ari dira, eta irakasleak ere oso ondo ari dira erantzuten. Lehen aurrez aurreko eskolan erdi-lo zegoena, orain ere hala egongo da pantaila aurrean, baina konektatzen direnak %100 dira. Astero-astero egoten naiz titulu guztietako arduradunekin eta, bai, beti sortzen dira gauzatxoak, baina balorazioa oso positiboa da.

♦ **Ikasle guztiek ez dituzte baliabide berdinak izango etxeetan. Nola konpondu hori?**

Mondragon Unibertsitatean matriculatu diren ikasle guztiei ordenagailua izatea eskatzen zaie, beraz ordenagailu falta ez da arazoa gurean. Konexio arazo batzuk izan dituzte ikasle banaka batzuek, baina salbuespenak dira eta salbuespen moduan tratatu ditugu. Ingeniaritzan 1.000 bat ikasle ditugu eta konexio arazoak dituztenak ez dira %1a. Halakotan, klase birtualak

grabatu egiten dira eta esteka bidaltzen diegu edo grabazioa jartzen dugu haien eskura.

♦ **Beharbada zuen ikasleen egoera ekonomikoa beste bat da EHUKoekin alderatuta?**

Neurri batean izan daiteke, baina berez gure eredu irekia da denentzat eta beti esaten dugu ez dugula nahi familiaren egoera ekonomikoa traba izatea MUn ikasteko. Horretarako badauzkagu laguntzak.

♦ **Zerbait gehitu nahiko zenuke?**

Ebaluaketa eredu eta ikasleei eskatzen zaien proiektua dira gure unibertsitatearen bereizgarri nagusiak. Sei hilabeteko bakoitzean ingenieritzako titulazio guztietan proiektu bat garatzen dute taldean irakasleek. Problema bati soluzio bat ematea eskatzen zaie, eta prototipo bat eraikitzea. Koronabirusaren testuinguru honetan zalantza egon ginen honi eutsi edo ez, baina azkenean aurrera egitea erabaki genuen. Bizi dugun egoerara eta ikasleen baliabideetara egokituko dugu proiektua, baina egin, egingo da, eta iruditzen zaigu modu horretan apustu sendoa eman dugula gure eredu mantentzeko.



IKER LAUZIRIKA, Erasmus programako unibertsitate ikaslea

itzuli dira, baina zuk bertan geratzea erabaki duzu. Zergatik?

Egoera honen aurrean Belgikan baliabide gehiago eta hobeak izango gaituela pentsatu nuen, eta horregatik erabaki nuen bertan geratzea. Dena dela, etxera itzuli direnek ere oraindik ez dute ikasturtea amaitu, eta bakoitzak bere etxetik jarraitu beharko du ikasten, on-line. Askok pentsatu dute egoera honetan seguruago egongo zirela etxean, baina niri Belgikak segurtasun handia ematen dit eta hemen geratu naiz. Amamak sekulako disgustua hartu zuen hemen geratzea erabaki nuen, eta hasieran pentsatu nuen maitzean edo bisitan joatea Elgoibarrera,

baina orain ez dakit ekaina amaieran ere bueltatzerik izango dudana.

♦ **Ikasleen erresidentzia batean bizi zara. Zein babes neurri hartu dituzue?**

Nik nire logela daukat niretzako baxurrik, baina sukaldea partekatu egiten dugu, eta hor kontuz ibili behar gara. Europa garbigailurik ez daukagu, eta erosketak egitera ere kalera irten behar izaten dugu. Momentuz, guk dakigula behintzat, erresidentzian ez da koronabirus kasurik egon, baina agian egon daiteke norbait kutsatuta sintomarik gabe.

♦ **Nola dago egoera Belgikan?**

Osasun aldetik oso gaizki dago egoera, eta jende asko dago kutsatuta, baina

♦ **Belgikan zaude Zuzenbidea ikasten eta han harrapatu zaitu koronabirusak. Erasmuseko beste ikasle batzuk etxera**

ospitaleek baliabide asko dituzte, eta alde horretatik ez dago saturaziorik.

♦ **Europako zenbait herrialdetan konfinamendua ez da hemen bezain zorrotza. Zein neurri hartu dituzte Belgikan?**

Hemen kirola egitera esaterako irten daiteke, eta goizeko 7:00etatik 10:00ak bitartean, txokolategiak ere zabalik daude hasieratik, eta kalean jendea ikusten da. Alemanian bezala, hemen askatasuna izugarri maite dute, eta oso zaila da jendea etxeetan mantentzea. Herritarrek pasiatzera irteten dira, lasai asko.

♦ **Aurrez aurreko eskolak, baina, hor ere etenda daude, ezta?**

Bai, etxetik ari naiz ikasten. Agenda moduko bat prestatu dut, eta egunero seitzentzi bat ordu ematen ditut ikasten, esko-

lan izan beharrean, etxean. Baina koronabirusaren pandemia iritsi aurretik ere eskola asko jasotzen genituen on-line. Irakasleek Internetera igotzen dituzte klaseak eta etxetik jarraitzen ditugu. Orain asignatura guztiak jasotzen ditugu horrela. Irakasle askok euren etxean bertan grabatzen dituzte klaseak eta bideoak jartzen dizkigute guk ikusteko. Baina, printzipioz, azterketak presentzialak izango direla esan digute. Ekainerako daude aurreikusita eta momentuz ez dituzte fetxak aldatu. Nik ez dut uste posible izango denik, baina nahiko burugogorrek dira hemen eta eurek erabaki horri eusten diote.

♦ **Teknologia aldetik ondo prestatua zaudete eskolak on-line jarraitzeko?**

Bai, nik ez daukat arazorik. Unibertsitate

tate honetan ia ezinbestekoa da teknologia aldetik ondo prestatua egotea klaseak jaso ahal izateko. EHUUn bertan ere esango nuke gaur egun ikasle gehienak behartuta daudela etxean ordenagailua eta Internetarako konexioa edukitzeraz, bestela, oso zaila da klaseak eguneara eramatea. Laz baneukan lagun bat etxean ez zeukana baliabide teknologiko nahikorik eta askotan oso gaizki ibili zen lanak eta egiteko. Gaur egun, koronabirusaren kontu hau gabe ere, unibertsitateak derrigortu egiten zaitu baliabide teknologikoak edukitzeraz, bestela galduta zaudete, baina unibertsitateak berak Donostiako gure fakultatean hamar bat ordenagailu bakarrik jartzen ditu ikasleen eskura, hori nahikoa izango balitz bezala.



NAHIARA MUGERTZA, Landare Biologia eta Ekologia Saileko irakaslea EHUko Zientzia eta Teknologia fakultatean

aldatu behar dugu eta galderei erantzuteko zenbat denbora izango duten ere adostu behar dugu, bai eta ebaluatzeko irizpideak ere. Apirilaren 30erako egin behar dugu hori. Ni, bereziki, ikasleek konektatzeko izan ditzaketan arazoak kezkatzen naute, baina bai, ebaluazioa bada gure kezka handietako bat ere. Erabiltzen dugun plataformak aukera ematen digu ikusteko ikasleak konektatuta dauden edo ez, baina horrek ez du arazoa konpontzen. Lehenengo aldia da modu honetara bukatuko duguna ikasturtea, eta bai, kezka badugu. Irakasteko modua ere ezinbestean aldatu behar izan dugu, ezin garelako ikasleak gelan aurrez aurre bagenitu moduan jardun hizketan ordenagailu bidez, eta buruari asko eragin beharra izan dugu horri buelta emateko.



♦ **Nola ikusten dituzu ikasleak?**

Askotariko ikasleak dauzkate. Badauzkat bi ikasle egunero bi-hiru mezu bidaltzen dizkidatenak, bai eta egun bakar batean 11 mezu bidali zizkidana ere. Beste batzuen berri apenas

dudan. Baina aurrez aurreko eskoletan ere hala zen. Orain ere, fina dena fin ari da, baina garbi dago lehen ezinean zebilenak orain zailtasun handiagoak dauzkala. Ez da gauza bera ikasle bati aurrez aurre ematea azalpena, edo bideokonferentziaz edo posta elektronikoz ematea. Ez da gauza bera laborategian landare bat eskuan hartu eta lupa batekin aztertzea irakaslearen azalpenak entzunez, edo landare horren irudiak bidali eta modu horretan lantzea ikasgaia. Ariketarekin batera beti bidaltzen diegu mezu bat zalantzarik ba ote duten galdetzeko, baina... Gure ikasleak adinez nagusi dira eta ardura hartu beharko lukete, baina... Azterketa prestatzen dihardut egunotan eta nire asmoa da ikasgelan ikasi dugunari ematea garrantzi handiagoa eta oinarrizko kontzeptuak ondo barneratu dituztela ziurtatzea. Nire ikasleek bost teoria eskola galdutuzte, ez da horrenbeste ere, baina praktikak oso-osoan galdutuzte. Nik ez dakit beste arloetan nola dabilen, baina erraza ez da, ez. Iruditzen

♦ **EHUn ere on-line amaituko duzue ikasturtea eta ebaluazio-sistemak eragin du halako kezka bat. Kezkatzen zaitu?**

Bai, jakina. Azterketak on-line egin behar dituzte orain ikasleek eta apunteak eta bestelako informazio-iturri guztiak eskura izanda, dakitena baino gehiago dakiten itxura eman dezakete. Hori saihesteko, azterketa-eredua bera



HEZKUNTZA


zait ahal dena egitea dagokigula denoi, konfiantza izatea gure ikasleengan eta aurten ematen ez dena datarren urteko materialari gehitzea. Ikasturte berria, beraz, errepasoarekin hastea ezinbestekoa izango da. Ezin duguna egin da normalizat hartu berez egoera anomaloa dena. Dena den, nik esango nuke nire ikasleak nahiko fin ari direla, baina denetarik entzuten da beste irakasle batzuekin hitz egitean. Ikasle guztien egoera ere ez da berdina. Aitxitxa-amamak zaintzera base-rrira joan behar izan duen ikasle bat ere badaukat, bere egoeran on-line bidezko zuzeneko eskolak jarraitu ezin dituenen. Ordenagailua ikasle denek izango dutela esango nuke, baina gerta daiteke ordenagailu hori etxeke beste batzuekin konpartitu behar izatea orain, denek behar dutelako, eta saketako telefonoz lan egin behar izatea. Birritan galdetu diet ia era horretako arazorik ba ote duten, eta inork ez dit halakorik esan, baina kasuistikak asko dira eta egongo dira egoera horretan daudenak ere EHUen.

♦ Dena aldatu da, baina bereziki zer nabarmendu zenuke?

Guk irakaskuntzan ez daukagu fitxatu

beharrik. Bakoitzak zehaztuta dauzka zenbat teoria-ordu, zenbat praktika-ordu eta zenbat tutoretza-ordu eman behar dituen eta gure ardura da betetzea, baina inor ez daukagu gainean. Bete ezean, azalpen bat zor diegu ikasleei, jakina, baina beti daude ordu gehiago nahiz gutxiago sartzen dituzte irakasleak. Baina egoera honetan, plangintza bat betetzea eskatu digute zuzendaritzatik: zer egin behar dugun, nola, noiz, zein erreminta erabiliko ditugun... zehaztu behar dugu, eta horren barruan, galdetegi bat ere sortu dugu ikasleei bidaltzeko. Eskolak hartzen dituzte ikasleek, eta egiten duten gauza bakoitzarekin galdetegi bat bete behar dute orain. Lehenaz gain, lan gehiago eman diegu beraz, irakasle guztiok ari garelako hori eskatzen, eta iruditzen zait egoera ez dela behar baino lan gehiago eskatzen. Zergatik lehen hiru orduko eskola zeukan ikasleak egin behar ditu orain, egoera anomalo honetan, hiru ordu horiez gain, beste lau lan, bi bideo ikusi, irakasleari balorazioak bidali... Esango nuke gauzak ondo egin nahi horretan, ikasleak agobiatu ere egin ditugula, bereziki hasieran. Ahaztu egin zaigu etxetan bizi dugun egoera, eta ez zaigu


komeni iparra galtzerik. Nik neuk bizi dudun egoera bera bizi dezake ikasle batek etxean: izan dezake anaia txikia zaindu beharra, izan ditzake gurasoak telelanean, aitona-amonak gaixo, egon daiteke psikologikoki ahulago... Geuri gertatzen zaigu eta komeni zaigu denoi ere beste batzuen azalean jartzea. Etxean gaude, egun osoz daukagu ordenagailua piztuta eta erdi amorratuta gaude, ezin garelako denera iritsi. Lehen jai-egunak jai-egun ziren eta lan-ordutegi bat geneukan. Mezu bat bageneukan posta elektronikoa bat bidaltzen genuenean eta biharamunean lanera sartutakoan irakurtzen zuen lagunak, baina orain, dena da whatsapp eta ez dago deskonektatzeko tarterik. Normaltasun itxura eman nahian ari gara, baina itota ari gara une askotan, eta esango nuke ikasleak ere halatsu ibiliko direla, behintzat egin behar dutena egiten ari direnak. Ebaluazioari begira ez dakit nola egongo diren: batzuk lasaiegi beharbada, pentsa dezaketelako azterketak on-line izanda erraztasun handiagoa izango dutela gaintzeko, eta beste asko estu, egoera berriek beti sortzen dutelako urdurtasun puntu bat.



JULEN ALMENARA, IMHko ikaslea

"Lanbide Heziketako ziklo bat ikasten ari naiz IMHn, eta aurrez aurreko klaseak eten zituztenetik etetik ari naiz ikasten. Ikasketak on-line izatean, bideo-deien bidez egiten ditugu klaseak (jitsi meet, bbb eta horrelakoak erabiltzen ditugu bideo-deiak egiteko...). Harremanetarako modu horrek zailtasunak sortzen ditu: wifiaren arazoak izaten dira askotan, eta batzuetan irakaslearen ahotsa moztuta entzuten da. Niretzako bide hori ez da oso erosoa, baina hori da daukaguna. Ikasturteari dagokionez, nik pertsonalki ez dut kezka handirik. Goi mailako zikloko lehenengo urtean nagoelako oraindik, eta aurtengo kurtsuan ez daukagulako praktika-entresetan. Teknologia berriekin hasi garenez, diseinatze programa berriekin ere hasi gara. Nire kasuan IMH-k portatil bat utzi dit, nire ordenagailuan ezin delako programa hau deskargatu. Niretzako programa hau on-line ikastea oso zaila da, programa konplexua delako. Dena den, irakasleak egun osoan zehar prest daude zalantzak argitzeko bideo-deien bidez, eta hori eskertzekoa da".

EZKONTZAK, HILETAK, JAUNARTZEAK



ASIER ATORRASAGASTI ETA OIHANA LIZARRALDE, Uztailen ezkontzekoak zirenak

“Begira, uztailearen 4rako jarri genuen ezkontzeko eguna, gure ametsa munduari itzulia ematea zelako eta amets hori gauzatzeko egunik aproposena hori zelako, hartara uztaile eta abuztu osoa hartzea geneukalako, baimen-egunak eta oporegunak batuta. Jatetxea, argazkilaria eta Dja lotu genituen egun horretarako, baina egoera honetan ez dugu uste guk nahiko genukeen ezkontza egiteko moduan izango garenik uztailearen 4an, eta horregatik erabaki dugu bertan behera laga-

tzea. Hasieran, galdetuta ere, inork ez zigun ezer esaten, eta erabakia geuk hartu genuen. Gerora deitu digute jatetxetik esaten maiatzean ez dutela otordurik eman eta ekainerako zituzten ezkontza-otorduak ere atzeratzen ari direla. Egoera larria da, eta agintariek egoerak hobera egiten duela zabaldu badute ere, ez dugu uste konfinamendu egoera hau amaitutakoan denok lehen bezala ibiltzeko aukerarik izango dugunik. Ez da posible etxean itxita egotetik horren denbora motzeari dena libre izatea!. Oihanak dioten moduan hilabete pasa darama amama ikusi gabe eta gero zer, dena libre? Ezkontza ospatzeko baimena izanda ere, zer izango litzateke gero, 12 lagunentzako mahaian hiru lagun jartzea? Hiru autobus kontratatu beharrean hamabi kontratatzea? Zer izan beharko genituzke,

170 lagun elkarren artean bi metroko distantza zaintzen? Musu, besarkada eta ukiturik gabeko ezkontzarik ez dugu nahi. Gainera, zer gertatuko litzateke ezkontza horretan gure etxeko eta lagunaren artean zabalduko balitz birusa? Ezingo genuke hori eraman. Ez dugu inor gaixotzerik nahi eta ez dugu arriskurik hartuko. Gure asmoa bada hori egitea zen, eta bada hori egiteko berriro ere uztaile arte egon beharko genuke zain. Ez dakigu zer egin; ez dugu pentsatu, eta ez gaitu lar kezkatzen, egia esan. Ez dakigu etxekoekin egingo dugun, geuk bakarrik joango garen bi lekuko hartuta sinatzera eta ondoren ospakizunen bat egingo dugun... Erabaki gabe daukagu. Gonbidatuei eman diegu gure erabakiaren berri, eta inor ez da harritu. Batzuk lasaitua ere hartu dutela esango genuke, gainera”.



BENANTZIO OTAEGI, Elgoibarko parrokoa



“Meza eta elizkizunak eten zirenetik hamasei bat familia ditugu funerala egiteko zain. Egoera honetan hilerrian egiten zaie hildakoei azken agurra, talde txikitik eta beharrezko babes neurriak hartuta. Hilerria leku irekia da, eta hamabi bat lagun biltzeko ere arazorik ez dago. Familiak oso desberdin bizi dute egoera hau, eta hildakoaren adinak ere azken agur honetan eragin handia dauka. Azkenaldian tokatu zaizkigu gazteak agurtzea, eta senideak triste ikusi ditugu, jakina. Momentuz ez dakigu noiz arte iraungo duen egoera honek, baina debekuak iraun bitartean, modu honetan jarraituko dugu.

Gero, egoera normalera itzultzen garenan, familiekin egoteko asmoa daukagu, eta heriotzaren dataren ordena mantenduta egingo ditugu hileta-elizkizunak. Beste leku batzuetan entzun dut epealdi honetan hil diren guztiei batera egingo zaiela meza bat, baina guri gustatuko litzaziguke hildako bakoitzari bere elizkizuna egitea, edo asko jota, binaka edo hirunaka. Egoera hau asko luzatzen bada, familia asko izango dira, baina poliki-poliki eta pazientziaz, agur duina emango diegu guztiei, etxeko, familiako eta lagunaren babesarekin. Heriotzak gaintzea familientzako beti da zaila, eta egoera arraro honetan are eta zailagoa. Kristau Elkarteak beti lagundu nahi izan du dolu horretan. Elkartearen ibilbidea errepasatzen jardun dut asteotan, eta ikusi dut historian zehar ere izan direla horrelako beste pandemia batzuk heriotza asko sortu izan dituztenak, eta elizak lagundu izan die senideei. Guretzat egoera berria

da, baina historiarentzat ez, eta niri lagun-tzen dit horrelakoak irakurtzeak, etorkizunari itxaropentsu begiratzeko. Gaintituko dugu hau guztia, eta mezu positiboa luzatu nahi nieke herritarrei: izan dezatela esperantza.

Hiletez gain, ezkontzak eta jaunartzeak ere bertan behera geratu dira, baina, gurean, lehen jaunartzeak atzeratu egin ditugu. 50 bat ume ziren maiatzean lehen jaunartzea egitekoak, eta guraso guztiekin hitz egin ondoren erabaki dugu atzeratzea, baina ez bertan behera lagatzea. Beraz, ahal dugunean denoi ondo etortzen zaigun igande bat zehaztuko dugu jaunartzeak egiteko.

Elizkizunak ere etenda daude, baina herritarrek badute errezatzeko beharra, eta askok telebistaz edo irratiz entzuten dituzte elizkizunak. Beste batzuekin telefonoz hitz egiten dut, baina etxetara joaterik ez daukat, osasun alarma egoeran gaudelako”.



ADINEKOAK

Egunean zortzi orduz Mendaroko eguneko zentroan izaten zuen aita Arantza Egañak (Mendaro, 1971), koronabirusaren zabaltzea eragozteko egoitza itxi zuten arte. Arantzaren aitak, Tomas Egañak, 89 urte ditu eta mendekotasun erabatekoa dauka.



ARANTZA EGAÑA, aita mendekoa duena

egoten ginen, jakina, baina berak prestatzen zuen. Gero, arratsaldeko 18:00etan etortzen zen berriro, zentrotik etorritakoan ohera sartzen laguntzeko eta iluntzean etortzen zen, berriz, afaltzen ematera. Orain, arratsaldeko bisita eguerdira pasatu dugu, eta moldatzen gara. Mendaroko neska bat da etortzen dena, Irene, eta oso gustura gaude berarekin; zoragarria da. Beti bat etortzea ere oso garrantzitsua da, erreferentziazkotasun horregatik. Momentu honetan beraz, ama, neska hori eta neu gaude aita zaintzeko.

Nik ulertzen dut eguneko zentroak itxi izana egoera honetan, baina egia da guretzat laguntza handia zela, egunak 24 ordu dauzkalako eta gure aita ume txiki baten pare dagoelako une honetan, dena egin behar zaiola. Eta gure aitak 89 urte ditu, baina amak 83 urte dauzka eta ondo dagoen arren, bi aldiz dago mokorretik operatuta eta gaztetasuna joan zitzaion. Nik ere lortu dut agiri bat Ongizate Sailari eskatuta eta etortzen naiz laguntzera, baina karga handiena amak du, bera bizi delako etxean aitarekin. Nik askotan pentsatu izan dut eguneko zentroa izango ez bagenu, adinekoentzako egoitzaren batean sartu beharko genukeela aita ezinbestean, ama ere nagusia dugulako eta gu, seme-alabok, lanean gaudelako eta ez dugulako egun guztia aita zaintzeko. Zorionez, eguneko zentroak aukera ematen digu aita etxean izateko. Aitak berak ere igarri du aldaketa. Burua nahiko ondo dauka, momentuka nahasten zaion arren, eta hasieran oso gogorra egin zitzaion. Eguneko zentroa joan nahi zuela esanez hasten zuen eguna eta erori ere egin zitzaigun ohetik jaikitzeke ahalegina egin zuen baten. Haserre zegoen. Ez dakit oso kontziente den egoeraz,

baina gu saiatu gara zer gertatzen ari den azaltzen. Orain, ohitu da, animaliak garelako eta denok ohitzen garelako egoera berrietara, baina ez zaio erraza egin, ez. Baina hori bera ikustea pozgarria da guretzat, horrek erakusten duelako gure aita oso pozik joaten zela eguneko zentrori. Begira, adinekoekin lan egiten dutenen lana inork ez du baloratzen norberari tokatu arte haien premia izatea. Tokatzen zaizunean konturatzen zara egiten duten lanak ez daukala preziorik. Nik defentsa sutsua egingo nuke langile hauen alde. Pertsona zoragarriak dira, dena ematen dute eta izugarri ondo zaintzen dituzte gure zaharrak. Mendaroko eguneko zentroa ezagutzen dut nik eta horko berri emango dizut, besteetako berririk ez dudalako, baina Mendaroko eguneko zentroa, egoitza bera, oso egokia iruditzen zait: ez dago jendez lepo [15 erabiltzailerentzako lekua dute, baina gaur, 10 dira] eta han gure adinekoek ematen dieten tratua oso pertsonala da. Baina bai, oso sektore prekarizatua da, beharbada oso feminiziatua ere badelako, eta jende bat orain ari da konturatzen egiten duten lanaz. Guk geuk oso garbi geneukan zein beharrezko zaizkigun profesional hauek, izan egoitzetan lan egiten dutenak edo etxetik etxe dabilzanak, eta zein beharrezkoa den zaintza erdigunera ekartzea. Beharra dugunean konturatzen gara zer lan egiten duten lau zentimoren truke eta zein beharrezkoa dugun denok ere haurren eta nagusien zaintzari buruz gogota egitea. Azkeneko kontu bat esan nahiko nuke: oso garrantzitsua iruditzen zait umeei kalera irteteko baimena ematea, baina oso garrantzitsua iruditzen zait jende nagusia ere apur bat kontuan hartzea. Konturatzen naiz gure ama ere gogortuta gelditu behar zaigula egoera

// Gure aitak 89 urte bete zituen marxoaren 19an eta mendekotasun erabatekoa dauka. Dena egin behar zaiot: jaten eman behar zaiot, pardelarekin dago... Gure gurasoak bakarrik bizi dira momentuan, ama autonomia delako eta gure laguntzarekin moldatzen delako, baina guretzat aita eguneko zentrori eramatea laguntza handia zen. Gainera, berak ere oso ondo hartu zuen hara joatea, guk bestera izango zela pentsatzen bagenuen ere, eta goizetan, zain-zain egoten zen eguneko zentrori joateko. Guri, berriz, egundoko arnasa ematen zigun aita 9:30etik 18:00ak arte ondo zaindua dagoen lekuan dagoela jakitzeak. Eta beraz, eguneko zentroa itxi izanak eragin handia izan du gure egunerokoa. Egia da etxetik etxeko zerbitzukoak ere oso ondo ari direla portatzen eta momentuan nahikoa ondo konpontzen garelako, baina aldaketa igarri dugu, bai. Etxetik etxeko zerbitzukoak lehen ere etortzen zitzaigun. Goizean ordu t'erdiz etortzen zen, aita eguneko zentrori eramateko prestatzeko. Geu ere han

honetan. 60 metro koadroko etxe batean bizi gara, eta pasiloan aurrera eta atzera ibiltzen da, baina ez da berdina. Iruditzen zait, segurtasun kontu denak bermatuta, pasiatzeko ordutegi batedo jarri beharko litzaiekeela adine-

koei ere. Bestela, lehen hamar bazeuden etxean geldi, hau amaitutakoan hogeitazongo dira, gogortuta geldituko direlako. Gure amari, adibidez, eguerdian kafea hartzera irteteak egundoko bizipoza ematen zion. Orain ezin du,

baina berba eginda daukagu eta Txirristaka zabaltzen dutenean, egun oso bat pasatuko dugu biok hantxe, terrazan, kafea hartu eta hartu. Kalte egingo digu beharbada, baina berdin dio.

Erizain laguntzailea da ogibidez Nuria Ansuategi (Mendaro, 1966) eta Mendaroko eguneko zentroa kudeatzen duen Zurekin S.L. enpresako kidea da. Eguneko zentroa itxi zutenetik, baina, Eibarko Ego Gain zentro gerontologikoan dihardu lanean. Koronabirusagatik ezarritako alarma egoera honek pertsona edadetuei nola eragin dien galdetu diegu, bai eta euren egunerokoaz ere.



NURIA ANSUATEGI, erizain laguntzailea

◆ Eguneko zentroa itxita dago, baina lanean jarraitzen duzue zuek. Zein da zuen egoera? Nola bizi duzue?

Tristura handiarekin bizi dut hau dena. Mendaroko eguneko zentroko langilea naiz ni, baina hura itxita dagoenez, orain Eibarko Ego Gain Gerontologia Zentroan gaude hiru lankideok: Fidel Ambrona, Maria Luisa Fernandez eta ni. Eta hemen egoera benetan da tristea. Ego Gain zentroa bera oso eraiakin handia da, eta egia esan eraikinarren ezaugarriek ere ez dute askorik laguntzen. Dementia duten lagun asko daude hemen, eta orain, geletan bakarrik egon behar dute, eta jakina, ez dute ulertzen. Gelan egon behar dute, baina korridorera irteten dira batzuk eta han entzuten dituzu negar baten Socorro,



socorro deika. Negar egitekoa da, egia esan. Ni neu buruko osasun arazo larriak dituztenen solairuan nago, gazteagoekin, eta hor egoera ez da hain txarra, eraikineko beste leku batzuekin alderatuz gero. Gureak apur bat irten daitezke terraza batean daukagun ortu txiki batera, eta zeozer bada, ezer baino hobea behintzat bai. Gainera, gure solairuan momentuz ez dago COVID-19 birusaz kutsatutakorik eta tira, bada zerbait, baina beste solairu batzuetan daudenek benetan egoera gogorra bizi dute. Baina bai, egia da tristura hau etxera ere eramaten dugula nahi baino gehiagotan. 16 urteko semea daukagu guk, eta etxean ere izaten ditugu hizketaldiak, gutako bakoitzak egoera hau nola bizi duen jakitzeko eta enpatizatzen.

◆ Ego Gain zentroan birusa sartu da. Nola bizi duzue langileok, eta nola, erabiltzaileek?

Birusa sartu da eraikinean, bai, eta larritasun handiarekin bizi dugu egoera, bai langileok eta baita egoiliarrek ere. Bakardade handia bizi dute adinekoek. Bisitak kendu dizkiete eta ondoen daudenei astean behin bideokonferentzia bidez komunikatzeko aukera ematen diete senideren batekin. Baina asko ez daude hitz egiteko moduan edo elkarriketa bat jarraitzeko moduan, eta are gutxiago modu honetan, bideokonferentziaz. Gertutasuna behar dute, kontaktuak. Kontziente direnak, hori bai, asko

eskertzen duten kontu bat da bideokonferentzia eta igartzen zaie, deitu behar duten egunean askoz pozago egoten direlako. Egoera honek asko pentsarazi dit eraikitzen ari garen gizarte ereduaz. Foru Aldundiak esan zuen, eta argitaratu ere egin zen prentsan-eta, laguntza ekonomikoak eta teknikoak emango zituztela egoitzetatik senideak etxera eramaten zituztenentzat eta niri oso gogorra egiten zait ikustea eraman zitzaketenek ez zituztela eraman. Triste nago alde horretatik. Momentu zail honetan ez bagara gai gure etxeok zaintzeko, zer etorkizun ari gara eraikitzen? Ondoan daudenak eraman izan balituzte etxeok, guk askoz arreta handiagoa eman ahal izango genieke gelditzen direnei, egoera honek gain hartu digulako, eta lehenaz gain, zaildu egin duelako birusak egoera. Kutsatuak dituzten solairuetan lanean ari diren langileak tentsio handiarekin ari dira lanean, kutsatzeko arriskua dutelako, material gutxiarekin jardun direlako oraintsu arte, eta lan egiteko modua ere derrigorrean aldatu behar izan delako. Langileak ere kutsatu dira birusaz, eta aurreko batean antsietate atake bat eman zion bati hemen, lanean ari zela. Bizi egin behar da hau, zein gogorra den jakiteko. Zorionez, materiala iritsi da, eta segurago ari gara lanean, baina emozionalki, ez gaude hain ondo.

◆ Nola moldatzen zarete egunero-



ADINEKOAK

koan? Zeintzuk protokolo jarraitzen dituzue?

Giro triste hori denera zabaldu da. Urduritasun handia nabari da, eta zer esanik ez norbaitek sukarra eman duela jakitzean. Egunetik egunera kasuak ugaritzen ari dira, eta jakina, kasu bat agertzen den aldiro ondo pentsatu behar da non zein jarri. Egia esango dizut: tentsio handiarekin bizi dugu denok, baina hemen, ardua karguak dituztenak oso estu ikusten ditut, zerbaitek emateko moduan, eta ez da gutxiagorako. Nik uste dut hau dena pasatzen denean, batek baino gehiagok beharko duela laguntza psikologikoa, batek baino gehiagok joko duelako hondoa. Ni aldi baterako nago hemen, eta gero bueltatuko naiz nire egoera normalera, baina neuri ere eragin dit honek. Babesgabe eta bakarrik ikusten ditut zaharrak, eta oso-oso gaizki ari dira pasatzen. Ikusten dituzte euren adin berekoak hiltzen eta komunikabideetan eta asko nabarmentzen da adinaren kontua. Eta jakina, ezin dituzu besarkatu, ezin diezu musurik eman, noiz eta orain, horren beharrik handiena dutenean. Nire gurasoetako bat hauen egoeran egon zitekeela imaginatze hutsarekin negarrak irteten dit, egia esan. Etxeetan dauden adinekoak ere arduratuta daude, eta hala ikusten ditut nik etxekoak ere, ba pentsa egoitzetan daudenak! Gogoan daukat orain 16-17 bat urte egon zen uda bero hura, edadeko asko hil ziren uda hura, baina honek baditu beste berezitasun batzuk.

◆ Hartu diren neurriak egokiak iruditzen zaizkizu?

Haut birus bat da, erraz zabaltzen dena eta bereziki patologiak dituztenei eta adinekoei eragin diena itxuraz. Begira, adinekoak entzun eta entzun ari dira zer nolako arriskua duten, euren eguneroko errutinaxoa ere ezin dute egin itxialdian gaudelako, eta etxean ere mugatuta daude. Umeez hitz egiten da, baina umeek beste entretenimendu batzuk ere badituzte etxean. Nik uste dut asmatu beharko genukeela bidea nagusiei ere aukera emateko etxeko atarira bada ere irteteko, modu seguru batean, asko eta asko ikaragarri ari direlako torpetzen itxialdian, baina klaro, hori ere bada: gai izango gara gero arduraz jokatzeko? Gai izango gara baimenak zentzuz erabiltzeko? Eskua eman eta besoa hartzekoa da gure jendarte hau eta hor daukagu arazoa. Zentzuz jokatu ezean, hasierara itzul gaitezke berriz, eta halakorik ez du inork nahiko behintzat!

◆ Zer mezu zabaldu nahiko zenuke?

Iruditzen zait gogoeta egin beharko genukeela denok, gizarteak hartu duen bidez. Geure barrura begiratu eta pentsatu. Birus hau gorabehera, iruditzen zait inoiz baino gehiago erreparatzen ari gatzazkiola zaintzari, datuek erakusten dutelako heriotza gehien egoitzetan eman direla gure bueltan behintzat. Baina orain arte zer?. Adineko egoitzetakoak greban egon direnean zenbaterako erreparatu diei haien eskaerei? Zenbat entzun ditugu protestan langileak greban egon diren bitartean euren etxekoei ez dietelako bizarrik kendu egoitzan?. Gutako baikoitzak egin beharko genuke ariketa

hori: barrura begiratu eta aztertu nola hartzen dugun zahartzarua. Niri negar gura ematen dit pentsatzeak gure seme-ari hau laga behar diogula. Begira, zaharra ez da izan dena, luzaroen dena baizik, eta den bitartean, ezin dugu bazterrerara bota, baliorik ez balu bezala. Egoitzetako ratioak aztertu behar ditugu, balioa eman zaintzaren munduan lan egiten dutenei; zaintzaren gaiari duen balioa emateko ordua da. Egoera gaitzotzen denean bakarrik konturatzen gara zer-nolako lanak ematen dizkigun gai honek, baina aspaldian murrizketa asko izan dira sektore honetan eta hori ordaintzen ari gara. Iruditzen zait buelta bat eman behar zaiela beste herrialde batzuetan dauden aukerei: adinekoentzako etxebizitza-ereduak...

◆ Eguneko zentroan lan egiten duzue berez. Eguneko zentroak badira aringarri bat mendekotasunen bat duten senideak dituztenentzat. Nola bizi dute egoera hau?

Ba. Askok akordatzeko naiz egunotan gure zentroko erabiltzaileekin eta haien familiarekin. Eguneroko zaintzaileentzat, familientzat, izugarritzko lasaitua da egunean 8 orduz senideak eguneko zentroran eramatea. Badakite han ondo zainduta daudela eta tarte horretan eurek deskantzua eta arnasa pixkat hartzen dute, zaintzaileak ere zaindu beharra duelako bere burua, ondo dagoenak eman ere gehiago emango duelako. Orain, hori gabe daude, baina, tira, gurekin egon gara behintzat, eta nahikoa ondo daramate. Bersekada bat hemendik denei.

 **BARREN sare sozialetan**



facebook.com/barrenaldizkaria

twitter.com/barreneus

instagram.com/barrenaldizkaria



HAURRAK ETA GAZTEAK

Erabakiak sortutako zalapartaren ostean, Espainiako Gobernuak zuzendu egin zuen martitzen iluntzean ordu batzuk lehenago 14 urtez azpikoak kalera irteteko eman zuen irizpidea. Horren arabera, domekatik paseatzera irten ahal izango dira adin tarte horretakoak, gurasoei baimenduta dituzten zereginak egitera laguntzeaz gain. Bihar dute zehaztekoa, baina, paseoak zein baldintza bete beharko dituen.



NOEMI OTEGI, ama eta Haur Hezkuntzako irakaslea

"Pandemia egoera batean gaude, egoera larria eta ezezaguna guztiarentzat. Ez da erraza neurri orokorrak ezartzea, eta horrelako kasuetan are gutxiago. Etxe bakoitza, familia bakoitza eta ume bakoitza mundu bat da. Guk etxean balkoia daukagu, argi naturala, eta umeak atenditzeko baliabideak; beraz pribilegiatuak sentitzen gara. Gure seme-alabek, gurekin

kalean buelta bat ematera joateko baino gogo handiagoa dute familiakoak eta lagunak ikusteko; guri ere halaxe gertatzen zaigu, ezta? Zer ez genuke emango gurasoei besarkada estu bat emateko eta lagunei muxu bana, baina egungo egoeran ezin da, eta gainera, ez dakigu noiz arte izango duen. Gure haurrek, daukaten adinagatik, ulertu dute egoera, berriak elkarrekin ikusten ditugu eta badakite zein den egoera, ez diegu ezer ezkutatu eta atsekabez, baina ulertzen dute egoera gogor batean gaudela. Ez nuke erabakiak hartu behar dituztenen azalean egon nahi, hala ere, baina, uste dut zuzentasunez jokatu

behar dutela, mezu argiak eta transparentziaz emanaz, eta ahal den neurrian, bide egokienak bilatuz egoera poliki-poliki bada ere normaltasunerantz gerturatzen joan dadin. Badirudi hainbat gorabeheraren ostean, datorren astean haurrak, 14 urtetik beherakoak behintzat, kalera irten ahalgo direla. Gure aldetik arduraz jokatzen saiatuko gara, ez dezagun pauso bat aurrera eman eta ondoren bi atzera. Benetan krudela izaten ari den gaixotasun honek, ahalik eta jende gutxiena harrapa dezan. Bakoitzak bereari baino gehiago, herriari begira jartzeko momentuan gaude, oraingoan ere".





DORLETA LAZARBASTER, ama eta laborategiko teknikaria

"20, 16, eta 11 urteko hiru seme-alabaren ama naiz, eta adinagatik bakarrik, hiru egoeratan daude. Martxoaren 13tik etxean daude hirurak, konfinatuta, eta gorabehera batzuk tarteko, ondo darabagu, baina nekatzen hasita daude eta nabari da. 20 urtekoa, izatez, joan daiteke erosketak egitera-eta, baina egiaz etxean dago eta nahiko ondo moldatzen da. 16 urtekoa, ezertara irten ezin denak, dauka irteteko beharrik handiena. Gutxienez ordubetez kalera irtetea eskatzen du. Hau ere etxean dago martxoaren 13az geroztik. Halabeharrez, gainera, paperak harrapatu zituen martxo hasieran, eta gero, itxialdi hau gehitu zitzaion. Lagunen falta handia du. Nerabezaroa badakizu zer den. Geuretzat ere hala zen, eta hauentzat ere bai: garrantzitsuena lagunak dira. Kalera irten nahiko

luke: patiora joan, lokalera joan... baina hori badakienez ezingo duela egin, konformatuko litzateke Lizarrolara bakar-bakarrik korrikaldi bat egitearekin, baina hori ere ezin du, 16 urte dauzkalako. Etxeko lanekin, eskolak jarraitzearekin eta etxe barruan egiten duen kirol-saioarekin betetzen du eguna. Hori bai, ez du ulertzen zergatik 14 urtera artekoak irten daitezkeen eta beraiek ez, eta egia esan, ez da bidezkoa; ez da bidezkoa. Gazteenak, alabak, 11 urte ditu eta honi ere igartzen zaio nekea. Lo hartzeko arazoekin dabil aspaldian. Azkeneko hiru egunetan zain-zain egon gara umei kalera irteten lagako zietela iragarria zutelako eta atzo arratsaldean [martitzena] jakin genuenean bakarrik gurasook baimenduta daukagun gauzetarako irten zitekeela, beti ere gutako batekin, sekulako purrustada bota zigun. Beste zerbait espero zuen; genuen. Erosketak egitera, farmaziara edo banketxera joan ahal izatea baimentzea eta inor ez dabilen lekura irteten ez lagatzeak ez zeukan ez hanka, ez buru. Psikologo eta pedagogoko guztiak

ari ziren ohartarazten zein garrantzitsua den ume eta gazteentzat kanpora irtetea, baina zeinek esango zuen pentsatzeko horrenbeste asti izan dutenek hori esatea? Nik uste dut hiriburu bateko erdigunean bizi direnengan pentsatuta hartutako erabakia izan zela; gurean horrek ez daukalako zentzurik. Beharbada Madril erdian bizi denari mundu bat zabalduko zaio erabaki horrekin, baina hemen? Leku askotan bakarrik ibiltzeko aukera daukagunean umeek bakarrik jende artera irteteko aukera izate hori... Zeinek eramango zuen umea jende gehien dabilen lekura, birusaz kutsatzeko arrisku handiena dagoen lekura? Nik neuk ez behintzat, guraso adinekoak ere baditugulako eta kezkatzen gaituelako. Eta hori nire seme-alabek adin bat badutela eta konturatzen direla egoeraren larriaz, baina 3-4 urteko umeak dituzuenok zer? Zorionez, atzera egin dute, baina hala ere, baimenak 14 urtera artekoak bakarrik eragiteari ez diot zentzurik ikusten. Eta beste gauza bat. 12-14 urteko askok nahi ere ez dute izango gurasoen eskutik irtetea kalera".



MERKATARITZA

Oinarrizko produktuak saltzen dituzten dendak ez beste guztiak itxita daude martxoaren 14tik. Hilabete luze pasatu da ordutik, eta momentuz behintzat ez dute esan noiz irekiko dituzten berrito. Egoera horren aurrean, Txankakua merkatarri elkarteko presidentearekin hitz egin dugu eta berak azaldu digu bizi duten errealitatea.



SONIA GOMEZ, Txankakuako presidentea

“Herritarren jarreraz harro gaude”

Etorkizuna ziurgabetasun handiz ikusten dugu. Kostatu egingo zaigu normaltasunera bueltatzea eta ekonomia errekupezeko denbora asko beharko dugu. Baina guk ahal den neurrian eutsi egingo diogu, eta mantentzen saiatuko gara nahiz eta zaila izan. Espero dugu bidean ahal den eta komertzio gutxien gelditzea. Baikorrak izaten saiatu behar dugu.

♦ **Autonomoentzako dirulaguntzak agindu dituzte agintariek, baina autonomoen elkartekoak kritiko agertu dira laguntza horiekin. Nola ikusten duzue?**

Azken hilabetean politikoek laguntza asko aipatzen dituzte, baina autonomoek ez dute askorik jasoko; laguntza urriak dira toki guztietan. Ikusi besterik ez dago lanbideren laguntzarekin gertatu dena: mila autonomoentzako laguntza zegoen eta Euskadin 65.000 kotizatzaile daude beren kontura lan egiten dutenak, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektoreetan, eta une honetan beren jarduerarengatik diru-sarreratik ez dutenak. Gero bakarrena eskatzearekin ez dugu ezer egiten. Udaletik, momentuz, zergen jaitziera bakarrik iragarri dute: zabor tasarena erdira ekarri dute, terrazak jartzearen tasaren murriztu dute... Momentuz ez gara zaborrik sortzen ari eta terrazarik ere ez dugu erabiltzen, baina ez digute beste laguntzarik eskaini. Badakigu beste herri batzuetan ari direla laguntzak eskaintzen, Azpeitian eta Deban, esaterako. Ez dakigu hemen zerbait eskainiko duten.

♦ **Zein mezu helarazi nahi diezue herritarrei une honetan?**

Komertzio txikia zaintzeko eta orain zabalik dauden denda txikitara joateko erostera, komertzio txikia beti egongo dela hor beraiei laguntzeko eta denon artean aurrera irtengo garela. Herritarren jarreraz oso harro gaude, beraien berotasuna sentitzen dugu: erosketak egiten dituzte, erreserbak edo bonoak erosten dituzte gero gastatzeko, eta, gainera, babes mezu asko bidali dizkigute. Gure herria zaindu egin behar dugu denon artean, eta horretarako elgoibartar guztiak oso garrantzitsuak dira.

♦ **Establezimendu batzuk Internet erabiltzen hasi dira jarduna erabat ez eteteko. Aukera ona dela uste duzue?**

Gehienak sare sozialetan ari dira eta sare sozialek ematen duten aukerekin gauzatxoak egiten: produktuak erakusten, erreserbak egiteko aukera eskaintzen, saltzen... Baina ez da erraza.

♦ **Hilabete pasa daramate merkataritza eta ostalaritza establezimenduek itxita. Nola ikusten duzue egoera Txankakuatik?**

Egoera iluna ikusten dugu, gehienok itxita gaude eta zabalik daudenak ere tentsio puntu batekin egiten dute lan. Lehen ere egoera ez zen oso ona guretzat, eta orain gertatutakoak ez du batere laguntzen. Ezjakintasunak ere antsietate puntu bat sortzen du.

♦ **Jendeak erosketa ohiturak aldatu egin ditu orain, eta saltoki handietara jotzen dute askok erosketa handiagoa egiteko asmoz. Igarri al dute salmentak jaitzi direla?**

Esan digute salmentak pixka bat jaitzi direla, erosketa ohiturak aldatu dituelako jendeak. Hala ere, okindegietan igarri dute lehen ogia bakarrik erosten zutenak orain produktu gehiago erosten dituztela. Esan dutenez, asko nabaritzen dute saltoki handietan produkturen bat agortzen denean. Adibidez, irina eta legamia agortu izan direnean, jende asko joan zaie erostera.

♦ **Zein da langileen egoera?**

Oro har, besteren kontura lan egiten duten langileak ERTEan daude, eta autonomoak, berriz, aktibitatea etenda.

♦ **Nola ikusten duzue etorkizuna?**

Hemen, merkaritzari lotutako bi errealitate desberdin.



NEREA GARITAGOITIA, Basueta baserriko nekazaria

“Hasieran azokak debekatu egin zituzten eta pixkat kezkatu nintzen, baina gerora konturatu naiz azokara joateak ere egoera honetan ez didala niri asko laguntzen. Hasi naiz berriz eguernetan merkatu plazako postura joaten, baina oso jende gutxi dabil. Jendeak ez dauka lehen bezala erosketetara irteteko aukerarik, eta gainera, nire bezero gehienak adinekoak dira, eta horiek ezin dira etxetik irten. Orduan, etxez etxeko salmenta martxan jartzea erabaki genuen, eta Debemenen bitartez informazio hori BARRENen eta beste egunkari batzuetan publikatu zenean, jende pila bat hasi zen deika. Egia esaten badut, orain lanez lepo nabil, eta oso-oso pozik nago. Lehengo bezeroez gain, herritar asko ari zait deika, eta asko gainera, gazteak. Ni orain

oso ondo ari naiz lanean. Denbora gehiago behar dut, bakoitzaren eskaria prestatu eta etxeetara joateko, baina irtenbide ona izan da. Jateko dendak zabalik daude hasieratik, eta lan hori ez dut eten, eta orain, etxeetara saltzen dudanarekin oso gustura nabil. Barazkiak, arrautzak eta fruitu lehorrak saltzen ditugu. Nekazaritza sektorea gogorra da, eta beti justuan ibiltzen gara, eta gauza berriak asmatu beharra daukagu. Nik oraingoan asmatu dut etxeetara saltzeko kontu honekin, eta pozik nago”.



ONINTZA ARANBURU, Aranburu bitxi-dendakoa

“Hasieran osasuna zen gure ardur nagusia. Gure nagusiak ondo egotea bereziki. Baina egunak aurrera joan ahala, kezka ekonomikoa nagusitu da. Dendak aurten 57 urte beteko ditu, eta lehenengo aldiz ezagutu dugu horrelako egoera bat. Bi denda daukagu, bata Elgoibarren eta bestea Oñatin. Nire ahizpa eta ni gara jabeak, eta lau langile ditugu, eta une honetan ERTEan gaude. Oso arduratuta gaude badakigulako gure sektorea ez dela oinarrikoa herritarrentzat. Denoi gustatzen zaigu dotore egotea, baina argi daukagu bitxiak ez direla lehentasunezko produktuk. Osasun krisiaz gain, krisi ekonomikoa ere sortu du guzti honek eta familietan eragin handia izango du. Egoera honetan bitxiak ez dira egongo herritarren lehentasunetan. Ez dakigu noiz itzuliko garen

lanera, baina egoera hau luzerako doala dirudi. Lan egiteko modua ere aldatu beharko dugu. Gure produktua ikustekoa, ukitzekoa eta probatzekoa da eta eskularrekin probatzea ez da gauza bera. Dena ondo garbitu beharko dugu, manparak jarriko ditugu dendan... dena desberdina izango da. Oso-oso kezkatuta gaude, baina aldi berean, aurrera jarraitu nahi dugu, eta ilusioa ere badaukagu. Elgoibarko eta Oñatiko herritarrei eskerrak eman behar dizkiet gurekin oso ondo portatu direlako beti, eta espero dugu aurrerantzean ere euren babesa jasotzea. Irtengo gara honetatik ere, baina ez dakit noiz. Normaltasunera iritsiko gara berriz, seguru nago, baina aldi hau pasatu egin behar dugu, eta badirudi luzea izango dela”.

'Erosi herrian' kanpaina hasi du ELGOIBARKO IZARRAK

Alarma egoera honetan dekretuz itxi dituzte herriko hainbat saltoki eta zerbitzu, baina haietako batzuk hasita daude zerbitzua ematen, beste modu batean bada ere.

Zerrenda osatzen ari gara. Egoera honetan zaudenetako bat baldin bazara, jarri gurekin harremanetan.

kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus

643 499 169





Oier Etxaniz Beneitez

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.

**Borrokalari nekazina izan zinen azkenerarte.
Beti izango zara gure oroimenean.
Maite zaitugu.**

Etxekoak



Oier Etxaniz Beneitez

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.

**Pirata bihurtu arren,
beti izan duzu kemena,
guretzat jarraituko duzu
itsasoan barrena.**

Azkoitiko eta Eibarko sendia




Oier Etxaniz Beneitez

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.

**Biderik ez zegoen lekutik joan zinen
eta zeure arrasto propioa utzi zenuen.
Zure borroka, zure umorea,
zure konpromisoa eta eskuzabaltasuna
gure oroimenean izango ditugu beti.**

Betirako gure bihotzean.
Agullo Ruano familia.






Oier Etxaniz Beneitez

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.

**Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.**

Amama Maite, Juanjo eta Marian,
Maite eta Aitor, Iñaki, Igor, Jon eta June



Oier Etxaniz Beneitez

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.

Beti izango zara gure artean.

Elgoibarko Udal Musika Banda




Oier Etxaniz Beneitez

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.

Gora bizitza, Oier!

Zure lagunak



Oier Etxaniz Beneitez

**Irakatsi diguzuna ez dugu sekula ahaztuko,
nahiz eta zenekien guztia irakatsi gabe joan zaren.**

Gora bizitza!

88ko kintoak




Argazkiak martitzena eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Olatz**, zure 11. urtebetetzean. Muxu potolo bat familiakoen partez.



Zorionak, **Jare!** 6 urte! Ondo ondo pasa zure egunean, eta muxu potolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Eneko**, 6 urte potolo bete dituzulako. Etxeko partez.



Etxean, kalean, beharrea, baina, **Sara**, zuk 8 urte. Mila zorion eta muxu erraldoi bat. Etxekoak.



Zorionak **Luken** gure txapeldunari, maiztaren 6an 6 urte beteko dituelako. Muxuak Elgoibarko familiako partez.



Zorionak **Jakes** gure txikiari, maiztaren 7an 2 urte beteko dituelako. Muxuak Elgoibarko familiako partez.




Zorionak, **Ane**, sorgin txiki, bihar 7 urte handi egingo dituzulako. Primeran ospatu! Muxu potolo bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Ilune**, hilaren 21ean 10 urte bete zenituelako. Ospatu genuen etxekook, baina, gero berriz ospatuko dugu sende eta lagunikin. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Ane**, astelehenean 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, printzesa.



Zorionak, amama **Pakita** zure 94. urtebetetzean. Familiako guztien partez.




Zorionak, **printzesa!** Irtsi da eguna! 5 urte! Muxu potolo bat etxeko, eta bereziki Noa eta Jonen partez.




Zorionak, **Ibai**, pasa den asteartean 3 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Intza!** 9 urte handi! Muxu handi bat denon partez. Maite zaitugu.



Zorionak Gara-gartza telebistako gure berriemaileari igandean 7 urte beteko dituelako. Muxu handi bat, **Iraiti**, lagunen partez.



Zorionak, **Ekain** eta **Iago** 7 urte bete dituzelako. Muxu handi bat gurasoen partez. Asko maite zaituztegu.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Alarma egoerak irauten duen bitartean, Elgoibarren guardiako botikarik ez dagoen jai egunetan Yudego farmazia zabalik egongo da, 10:00etatik 13:00etara.

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

24 BARIKAKUA	25 ZAPATUA	26 DOMEKA	27 ASTELEHENA	28 MARTITZENA	29 EGUAZTENA	30 EGUENA	1 BARIKAKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez / *Arriola	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez * Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean	Iluntzean	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Finantza Administrazioen Kontseilua



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko jabe batek etxe bat baino gehiago ditu komunitatean bertan, eta azken bi urteetan ez ditu ordaindu etxe horietako bati dagozkion kuotak.. Jakin nahi nuke arrazoi horrengatik eskubideak murriztuta dituen.

Zuk galdetzen duzuna da jabeakide bat hainbat jabetzaren titularra bada, horien guztien kuotak egunean izan behar dituen ala ez. Legeak adierazten duenez, batzarra hasteko unean komunitatean ordura arte sortutako zorren ordainketan egunean ez dauden jabeek, zor horiek judizialki aurkaratu ez badituzte edo zordundutako zenbatekoa epailearen edo notarioaren zainpean utzi ez badute, eztabaidetan parte hartu ahal izango dutela, baina ez dutela boto-eskubiderik izango. Ildo horretan, jurisprudentzia kontsolidatua da, eta adierazten du jabe bakoitzari boto bat dagokiola, nahiz eta etxebizitza bakarraren edo batzuen titularra izan, gehiengo ekonomikoen ondorioetarako duen partaidetza-kuota handiagoa ahaztu gabe. Hau da, komunitateko kuotak ez ordaintzeari dagokionez, boto-eskubidea izateko aipatutako baldintza guztiak bete behar dira. Hala nola, batzarra hasteko unean dagoen egoera egiaztatzea, jabeek komunitatearekin mugaeguneratutako zor guztiak ordainduta izatea, eta, azkenik, zor horiek judizialki aurkaratu ez badituzte edo zordundutako zenbatekoa epailearen edo notarioaren zainpean utzi ez badute.

Ondorioa: boto eskubidea ukatzea orokorra da, zigor gisa aplikatzen baitzaie batzarra hasteko unean komunitateak aurrez izandako zor guztien ordainketa egunean ez duten jabeek. Beraz, komunitateko kuota guztiak ordaintzen ez dituen bitartean, boto eskubiderik ez du izango.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



FOTOIOSU PHOTOGRAPHY

Iosu Juaristi



Iñigo Otaño



Jakin bazekien biderik egokiena ez zela errazena, esfortzu eta sakrifizio handia eskatzen zuen bidea zela jarraitu beharrekoa. Baina ez zitzaion inporta, berak huraxe nahi zuen, energia sobran zeukan eta indarra topera. Bizitza osoa zeraman huraxe

prestatzen eta ez zuen etsiko, nahiz eta aldaparik gogorrenaren erdian egon.

Txikitatik erakutsi zioten gora iritsiko zela, gogo handiz nahi izatea besterik ez zeukala. Markatutako bidea jarraitu zuen, bide malkartsua baina era berean saririk handiena emango zion bidea. Arrakastaren bidea, goitik behera begiratzea ahalbidetuko zion bidea...

Baina inork ez zion esplikatu zailena ez zela gora iristea, han mantentzea baizik. Are gehiago, inork ez zion esplikatu jaitsiera saihestezina zela, lehenago edo beranduago etorriko zela, eta igotzea baino are gogorragoa izango zela. Hori irenstea eta onartzea izango zela lanik zailena, horretarako inork prestatu ez zuelako, ikasitako guztiak ezertarako balio ez zuelako orduan. Eta geldituko zena, beti bezala, izandakoaren oroitzapena besterik ez zela.

Koronabirusaren kurba ere badoa behera, baina uste genuena baino gehiago kostatzen ari zaigu, pentsatzen genuena baino gogorragoa izaten ari da. Ez etsi, hau ere bukatuko da eta noizbait gertatutakoaren oroitzapena bihurtuko da. Hurrengo belaunaldiari kontatzeko istorio bat gehiago, ea zerbait ikasten dugun sikiera.


“Baina inork ez zion esplikatu zailena ez zela gora iristea, han mantentzea baizik”



Ioseba Arrizabalaga Mendikute

"Iriarte"

2020ko apirilaren 19an hil zen, 43 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Ioseba Arrizabalaga Mendikute

2020ko apirilaren 19an hil zen, 43 urte zituela.
Momentu gogor hauetan bat egiten dugu sendiaren saminarekin.

Zure amaren kafeko lagunak




Carmen Ferrer Ruiz

2020ko apirilaren 10ean hil zen, 85 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Agustin Gorostiza Garate

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 83 urte zituela.



***Eskerrik asko
hasierako amets hura
gaur den errealitatea bihurtzeko
egindako lan guztiagatik.***



Agustin Gorostiza Garate

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 83 urte zituela.



***Senar bezela maitagarria
aita bezela gozua
lana zuretzat arlo danetan
ez da izan arazua
edozer gauz egiteko prest
danian hain erosua
musika ere maite zenduan
doinua ondo jasua
juan zera baina beti piztuta
gure bihotzetan sua.***

Sendiak



Ioseba Arrizabalaga Mendikute

2020ko apirilaren 19an hil zen, 43 urte zituela.

***Kolpe gogorra izan da herri osoarentzat.
Algara eta lan ugariren oroitzapen asko ditut Josebarekin,
Elgoibar asko maite zuen. Elgoibarrekin zuen konpromisoa
eta elgoibartarrei ematen zien zerbitzua azpimarratzea
gustatuko litzaidake. Langile nekaezina, gizon maitatua.
Nire doluminik beroenak senideei
nahiz inguruko lagun min guztiei.***

Auzo alkateak



Ioseba Arrizabalaga Mendikute

2020ko apirilaren 19an hil zen, 43 urte zituela.

***Lan egiteko garaian beti
azkar eta zintzo ekin,
laguntza behar zenean, berriz,
beti gogotsu, beti fin
alaitasuna apaltasunez
uztartzen zendun denekin
zure agurrak nahiz sortu digun
nahiko tristura eta min,
oroitzapenak bizi-bizirik
gelditzen dira gurekin.***



Ioseba Arrizabalaga Mendikute

2020ko apirilaren 19an hil zen, 43 urte zituela.

***Ferietan gendun lagun Joseba
sarritan elkargunea,
baina dakigu bizitzak sarri
duela lokarri mehea
zurea gogor zego(e)n ustetan
heldu eteteko uea
zeinek bete behar du orain zuk
laga dezun hutsunea.***

Elgoibarko Trinitate ferriako jai-batzordea





Etxealditik
EUSKARALDIRA

Ohitura aldaketa etxetik hasten da

   @euskaraldia

 @belarripest / @ahobizi

 www.euskaraldia.eus/etxealdia

 **MILAR BIRE**

EZOHIKO GUTXIENENKO ZERBITZUAK

Behar-beharrezko etxetresna elektrikoak.
Ahal den neurrian, etxez etxeko zerbitzuari eutsiko diogu.
Arreta ematen jarraituko dugu telefono zenbaki honetan:

943 741 487